

## ARTEA ETA FILOSOFIA

Platonen ahoan jartzen ditu Iris Murdochek hitzok, *Art and Eros* tituluko antzerki-lanean: «Artea arriskutsua da filosofiarentzat, arriskutsua da erlijioarentzat. Egia osoaz mozarrotzen da eta pozik uzten gaitu gutxiagorekin. Eta jendeak hainbeste du gurtzen, Deximenesek esaten baitu antzerkiak tontoei zerbait ulertu dutela pentsarazten diela. Tontoak ez direnei ere zerbait ulertu dutela pentsarazten die artearen hizkuntzak, eta aurrera egitea galaraz diezaieke.»

Artea eta filosofia inoiz gatazkan izan badira, garbi dago zein irten den garaile gurean. Ikusi besterik ez dago zenbat museo dagoen eta horientzako zenbat diru publiko bideratu duten eta zenbat filosofia fakultate, sail, institutu eta diru dagoen. Entzun al du inork inoiz filosofiak gurean duen egoerari buruzko kezka publikorik? Eta San Telmo edo Guggenheimen ingurukorik?

Egia da arteak pertsona eta obra genialak eman dituela Euskal Herrian eta filosofiak oraingoz ez. Egia da Platonen garaitik hona filosofiak erditutako alaba zientifiko guztiek ama pobrezian utzita alde egin diotela (zientzien egoera ere ez dugu lasai lo egiteko modukoa, batzuk EAE *va bien* errepikatu arren). Egia da, bai, agintariak nahiago izan dutela gure giza sentsibilitatea eraikin erraldoi ikusgarrien bidez islatu, pentsamendurako azpiegitura sendo intangibleen sustatzea baino. Baina ez da egia tikiagoa, bertako filosofo profesionalek dutela, dugula, erantzukizun handiena filosofiaren gainbeheran. Filosofoa edozertaz hitz egin dezakeen eta bere patrika betetzea beste konpromisorik har ez dezakeen berritsu patologikoa bihurtu dugulako; filosofia ikasketetan desorganizazio, tribialitate eta ustelkeriari agintzen utzi diegulako; eta, batez ere, gehienek filosofia nolabaiteko artearekin parekatu nahi izan dutelako: egia bilatu baino, egia mozarrotzea dute helburu: tontoei zerbait ulertu dutela pentsarazi, tontoak ez direnei ulertzea galarazi.

(Oharra: Platon ez bezala, Deximenes, gizon zinikoa bera, Murdochek asmatutako pertsonaia da)